



DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO LEGEZKO OHARRA

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Arautegiaren (EB) 13. artikuluan xedaturikoarekin bat, pertsona fisikoen babesari eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez, Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dizkiguzun datu hauek zure borondatez eman dituzula eta honako tratamendu jarduera hauekin uztartzen direla:

ENARA Proiektua: Atzerriko euskal herritarrak ikerketa 2019

- Hauexek dira datuen tratamenduaz arduratzen den pertsonaren identitatea eta harekin harremanetan jartzeko datuak:

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaria
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza.
Nafarroa kalea, 2. (01007) Vitoria-Gasteiz

- Hauexek dira Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak:

EAEko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko Ordezkaria
Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Araubide Juridikoari atxikia.
Eusko Jaurlaritza
Donostia-San Sebastián kalea, 1. (01010) Vitoria-Gasteiz.

- Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen duen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuak kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzari esleitzen dizkion eginkizunen erabilera da tratamenduaren xedea.

- Ez da datu horiek hirugarrenei lagatzea aurreikusten.

- Bildutako datuak atzerrian dauden euskal egoiliarren hurrengo azterlana egin arte kontserbatuko dira.

- Tratamenduaz arduratzen den pertsonaren aurrean datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, kontra egiteko eta mugatzeko eskubideak erabili daitezke.

- Erreklamazioak aurkezteko Kontrol Agintaritza Datuak Babesteko Euskal Agentzia da, Gasteizko Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko 71. zenbakian dago (01008) Vitoria-Gasteiz.